

Martxoan erositako 10 dendan beste irekiera bat

EROSKI-K SUPERMERKATU PROPIO BAT IREKIKO DU BASAURIN

- **Saltoki berrituak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du, eta tokiko produktuen alde egiten du**
- **EROSKI-k 8 milioi euro inbertitu ditu martxoan erositako hamar dendak berritzen eta eraldatzen**
- **Hil honetan eta 2021eko lehen hiruhilekoan inauguratuko dituzte Bizkaian erositako gainerako lau dendak**

Basauri (Bizkaia), 2020ko abenduaren 10a.- [EROSKI](#) supermerkatu bat ireki du gaur, Basauriko Kale Nagusiko 22.ean. Martxoan erositako hamar dendetatik irekitzen duen zazpigarrena da. Orain arte, azken asteetan, lau denda inauguratu dituzte Bilbon, Henao eta Autonomia kaleetan eta Errekaldeko eta Deustuko auzoetan, bat Itzubaltzetan (Getxon) eta beste bat Erandion. Aurtengo azken supermerkatua ostegunean irekiko dute Galdakaon, eta gainerako biak 2021eko lehen hiruhilekoan.

Hala, EROSKI bere presentzia handitzen ari da Bilboko auzo guztietan, eta bere eskaintza osatuko du dendak ipinita Getxon, Astrabuduan, Santurtzin, Basaurin eta Galdakaon. Era horretan, 90 supermerkatu izango ditu guztira Bilbo Handian.

Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 800 metro koadrotik gorako salmenta aretoa du. 31 langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Supermerkatu berriaren ezaugarrien artean, nabarmentzekoa da bezeroaren arreta pertsonalaren alde egindako apustua, harategia, urdaitegia eta arrandegia jarri baititu. Hilero-hilero eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarririk behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 840.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

Tokian tokiko produktuek garrantzi handia

"Produktu freskoen eta tokian tokikoen alde egiten jarraitzen dugu. Ez da bakarrik gure izaeraren ikurra, baizik eta baita herritarren eskakizun gero eta zabalago bat Covid-19aren garaiotan", esan du EROSKI-k iparraldean dituen supermerkatuetako zuzendariak, Ismene Fulgenciok. Lehen seihilekoan %14,5 igo da EROSKI-k Euskal Autonomia Erkidegoan saltzen dituen tokiko produktuen kopurua. Eskualdeko

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta horiek erosteko 650 milioi eurotik gora erabiltzen ditu urtero.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneeekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat. Horretaz gainera, lurrindegri-parafarmaziaren atal zabal bat du, eta prestakuntza berezia duen langilea edukiko du bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Era berean, saltokia iraunkorragoa da ingurumen aldetik; izan ere, kontsumitzen duen energia %60 gutxitzen du supermerkatu konbentzional baten aldean, eta eraginkortasun eta ingurumen iraunkortasun baldintza zorrotzak betetzen ditu; horrek indartu egiten du EROSKI taldeak ingurumenarekin eta gizarte ongizatearekin duen konpromisoa. Hotz industrialean aplikatzen duen berrikuntza teknologikoari esker, eraikinak gutxiago kontsumitzen du. Gainera, argiterian LED teknologia darabil; horri esker, argiztapena homogenea da eta ikusmenarentzat oso eroso, eta ingurumen arriskua eta kontsumoa gutxitzen ditu.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

EROSKI da liderra EAeko elikagaien banaketan. 411 saltoki ditu guztira autonomia erkidegoan, hala nola supermerkatuak, hipermerkatua, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, eta *on line* supermerkatua, zeina bakarra baita erosketak EAE osoko edozein etxetara eramaten dituen.

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)